



ZIRKULARRA, 2025EKO ABENDUAREN 15EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZARENA, 2025EKO EKITALDIKO BESTE GIZARTE-LAGUNTZA BATZUETARAKO FUNTS EKONOMIKOA BANATZEARI BURUZKOA.

Indarrean dagoen Osakidetzako langileen lan-baldintzei buruzko Akordioaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, "Beste gizarte-laguntza batzuetarako" 69.116,39 euroko funts ekonomikoa ezarri da.

Erabaki horretan ezarritako baldintzak indarrean daudenez, bidezkoa da 2025eko ekitaldiari dagokion funts ekonomikoa banatzeko deialdia egitea. Zirkular honen bidez, eskaerak egiteko deialdiaren oinarriak ezartzen dira, Beste gizarte-laguntza batzuetarako funts ekonomikoaren kargura xedatutako laguntzak jaso ahal izateko.

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK

1. artikulua. Laguntzen xedea eta edukia

Zirkular honen xedea da gizarte-funtsaren laguntzen edukia, haiek kudeatzeko prozedura, ebazpena eta ordainketa arautzea onuradunentzat, honako modalitate hauekin:

- a) Laguntza protesikoa eta odontologikoa.
- b) Desgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza.
- c) Osasun-sistema publikotik kanpo dauden tratamendu eta esku-hartze medikoetarako laguntza.
- d) Nazioarteko adopzioengatikoko laguntza.
- e) Salbuespenezko laguntzak.

Modalitate guztiak metatu ahal izango dira.

2. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

1. Likidatuko den ekitaldirako dagoen zenbatekoa 69.116,39 eurokoa izango da. Laguntzak kalkulatzeko, behar bezala justifikatutako gastuek eskatzaileari dakarkioten galera ekonomiko pertsonala hartuko da kontuan. Ondorio horietarako, zirkular honen 13. artikulua kasuan esleitutako zenbatekoa justifikatutako gastutzat hartuko da.

2. Galera ekonomikoaren zenbatekoa, eskabideei erantzun ahal izateko atalase gisa, likidatzen den ekitaldiko onuradunaren urteko ordainsari gordinen % 7 izango da kasu bakoitzean.

3. Azken batean, laguntzak behar bezala justifikatutako gastuen edo esleitutako zenbatekoaren eta kalte ekonomikoaren zenbatekoaren arteko diferentziagatik emango dira, dagokion ehunekoa aplikatuta, zenbateko erabilgarriara doitu ondoren.

4. Eman beharreko gutxieneko zenbatekoa 50 eurokoa da, betiere funtsean dagoen zenbatekoa agortzen ez bada. Kasu horretan, esleitu beharreko zenbatekoa dagokion proportzionaltasun-irizpidearen arabera izango da.



3. artikulua. Nori eragiten dion

1. Hauek dute zirkular honen 1. artikuluan aipatzen diren laguntzak jasotzeko eskubidea:

- a) Estatutupeko langile finkoek.
- b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lan-baldintzen akordioa aplikatzen diren zerbitzu-erakundeetako karrerako funtzionarioek.
- c) Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen indarreko akordioari atxiki zaizkion Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako langile lan-kontratadun finkoek (langileen ordezkariak atxikitze-akta sinatuta edo atxikitze indibidualizatuaren bidez).
- d) Egiturazko langileen baimenaren mugen barruan dauden beharrak betetzeko bitarteko estatutupeko lan-harremana edo funtzionario-harremana duten langileek, baita plaza hutsik egoteagatik bitarteko estatutu-izendapenak ere, osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Esparru Estatutuko 9. 1 a) artikuluan arabera eginak, uztailearen 5eko 12/2022 Errege Lege Dekretuak emandako idazketaren arabera, baldin eta, kasu guztietan, betetzen ari diren lanpostuan sei hilabete baino gehiago badaramate lanean eta horrek eskaera egitea badakar.
- e) a), b), c) eta d) apartatuetan aipatzen diren langileen ordezkariak egiten dituzten langileek, izendapenaren egoerak irauten duen denboran gehienez ere, kasuan kasuko artikuluetan ezarritako arauen arabera. Ondorio horietarako, langile horiek sei hilabete baino gehiago eman beharko dituzte zerbitzuak betetzen ari diren eta eskaera eragin duen lanpostuan.

2. 2025. urte osoan zerbitzurik eman ez duten langileek egindako eskaerei dagokienez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan urte horretan lan egindako denborarekiko proportzioan erantzun zaitzaie.

3. Nolanahi ere, dirulaguntzak jasotzeko eskubidea sortzen duen gertaera ezinbestean gertatu behar da eskatzailea aipatutako aplikazio-eremuetakoren batean zerbitzu aktiboan dagoen bitartean.

4. Langileari eta/edo ezkontideari eta seme-alabei eragiten dieten egoera eta gorabeheretan oinarritutako eskabideak hartuko dira kontuan; seme-alabei dagokienez honako salbuespen hauekin:

- a. 25 urte beteta badituzte laguntzen xede den gertaera eragilearen egunean.
- b. Beste familia-unitate bateko kide direnean.
- c. Likidatzen den ekitaldian, norberaren kontura nahiz besteren kontura, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak diren laneko errentak lortzen dituztenean, urte osoak zenbatuta.

Kasu horietan, familia-liburuaren fotokopia erantsiko zaio eskaerari.

4. artikulua. Eskaerak eta agiriak

1. Interesdunek eredu ofizialaren arabera egin eta erregistratu beharko dute eskaera, eta behar bezala bete. Entregatutako faktura bakoitza gastu-lerro batean islatuko da eredu ofizialean; beraz, emandako faktura adina gastu-lerro izango ditu eskaera bakoitzak. Eredu ofizialak lerro nahikorik ez badu, eskatzaileak informazio hori aparteko orri batean osatuko du, eta eskaerari erantsiko dio.

<i>DATA / FECHA</i>	<i>KONTZEPTUA / CONCEPTO</i>	<i>ZENBATEKOA / IMPORTE</i>
<i>Guztira / Total:</i>		

2. Laguntza hauen aplikazio-eremuan dauden bi langilek onuradun komunak dituztenean, bakar batek izango du dirulaguntza jasotzeko eskubidea.

3. Eskaerekin batera, laguntza-modalitate bakoitzerako eskatzen diren jatorrizko agiriak eman beharko dira. Zuzenketa edo zirriborroekin emandakoek ez dute baliorik izango. Salbuespen gisa, fotokopia konpultsatuak onartuko dira jatorrizko agiriak entregatzea ezinezkoa dela justifikatzen denean.

4. Espedienteak ebazteko behar diren datuak egiaztatu eta argitzeko, administrazioak eskaerarekin batera entregatutako agiriei buruzko argibideak eskatu ahal izango ditu.

5. artikulua. Eskaerak egiteko epea eta lekua

Eskaerak zirkular hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko intranetean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egin ahal izango dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzetan entregatu. Eskaerak eta horiek justifikatuko dituzten agiriak entregatzeko azken eguna 2026ko urtarrilaren 31 izango da.

Zirkular hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren intranetean argitaratuko da eta adierazitako bidetik argitaratzen denean izango ditu ondorioak. Era berean, horren berri emango da zerbitzu-erakundeen iragarki-tauletan jarrita.

6. artikulua. Kudeaketa-prozedura

1. Eskaerak entregatzeko epea amaituta, zerbitzu-erakundeen langileen zuzendaritzek alfabetikoki ordenatuta eta zerrendatuta bidaliko dituzte Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara, 10 eguneko epean.

2. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez, onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda argitaratuko da, baztertzeko arrazoia adierazita. Ebazpen horren kontra bidezkotzat jotzen diren erreklamazioak egin ahalko dira, 20 egun naturaleko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita. Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren intranetean

argitaratuko da. Halaber, zerbitzu-erakundeen iragarki-tauletan jarriko da ebazpenaren berri emateko.

3. Egindako erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen baten bidez ebartziko dira. Ebazpen horrek eskaera osorik edo zati batean emango du, edo, bestela, ukatu egingo du. Ebazpen hori Osakidetzaaren intranetean argitaratuko da, eta aipatutako bidetik argitaratzen denean izango ditu ondorioak. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, ebazpenaren berri emango da zerbitzu-erakundeen iragarki-tauletan jarrita.

4. Ordainketa soldata bidez egingo da, eta eskaerak egiteko epea amaitu eta lau hilabeteko epean ordainduko da, zenbateko zehatzik ez dagoen kasuetan izan ezik.

5. Funtza lehenengo fasean agortuko da, eskaeraren zenbatekoa erabilgarri dagoen zenbatekoaren berdina edo handiagoa bada. Erreklamazio-fasean aldeko ebazpena jasotzen duten eskaerak hurrengo urteko gizarte-funtsaren kontura ordainduko dira.

7. artikulua. Bateragarritasunak

Laguntza hauek bateragarriak dira soldata-aurrerakinekin, aurrerakin itzulgarriekin edo administrazio publikoak emandako beste edozein prestaziorekin, betiere soldatan hileroko atxikipena badakarte.

8. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Zirkular honetan aipatzen diren laguntza-modalitateak bateraezinak dira gertaera eragile bererako edozein organismo edo erakunde publikok emandako antzeko beste batzuk jasotzearekin, zenbateko txikiagokoak direnean izan ezik. Kasu horretan, horien izaera eta zenbatekoa agiri bidez egiaztatzen badira, bien arteko aldea eskatu ahal izango da.

2. Era berean, ez dira bateragarriak beste akordio eta hitzarmen kolektibo batzuetan kasu beretarako jasotako laguntzekin, baldin eta familia-unitateko beste kide bat horiei atxikita badago eta horien onuraduna bada. Hala ere, aurreko apartatuan bezala, zenbateko hori txikiagoa bada, aldea eskatu ahal izango da.

9. artikulua. Eskaerak faltsuak izatea

Datuak ezkutatzan badira, emandako agiriak faltsuak badira edo eskatutako agiriak ematen ez badira, eskatutako laguntza ukatuko da edo emandakoa galduko da; azken kasu horretan, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuliko dira, Zigor Kodearen 390. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako erantzukizun penalak eta egon litezkeen erantzukizun zibil eta administratiboak alde batera utzi gabe.

II. KAPITULUA. OINARRI ESPEZIFIKOAK

10. artikulua. Laguntza protesikoa eta odontologikoa

1. Modalitate honetan, prestazio ekonomiko bat emango da, protesi hauek erosteko izandako gastuak ordaintzeko:

Hortz-protesiak:

- Hortzeria osoa
- Goiko edo beheko hortzeria
- Pieza solteak edo endodontzia
- Buxadurak edo enpasteak
- Implante osteointegratuak
- Ortodontzia

Begietako protesiak:

- Ikusmena hobetzeko betaurrekoak, hainbat motatakoak
- Kristalak berritzea
- Lentillak (mantentze-lanetako likidoak ez dira sartzen)

Entzumen- eta fonazio-protesiak:

- Audifonoak
- Fonazio-aparatuak

Kirurgikoak ez diren bestelako protesiak, aparatu bereziak eta baliaezinen ibilgailuak:

Osasun-sistema publikoaren edo mutualitate-sistema publikoaren prestazio-zerrendan agertzen ez diren edo berariaz ukatu zaizkien protesi ez-kirurgikoek edo aparatu bereziek soilik jasoko dute laguntza.

2. Agiriak.

- a) Protesiaren beharraren justifikazioa.
- b) Legez eratutako jatorrizko fakturak. Faktura horiek establezimendu espezializatuak egingo dituzte. Fitxa horietan datu hauek adierazi behar dira: IFK/IFZ, "jaso izana", data eta sinadura, eta erositako produktuaren xehetasunak, izena, abizenak eta eroslearen helbidea. Fakturaren data 2025eko ekitaldikoa izan behar da.

11. artikulua. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza

1. Laguntza-mota honen helburua urritasun fisiko, psikiko edo sentsozialen tratamendua, errehabilitazioa edo laguntza berezia ordaintzeak eragindako gastuak finantzatzea da.

Halaber, barruan sartzen dira ibilgailu motorduna eta etxebizitza desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokitzeko gastuak, gehienez ere 2.500 eta 5.000 eurokoak, hurrenez hurren.

2. Baldin eta pertsona horiek pentsio ofizialen bat badute esleituta edo beren gurasoak, ezkontidea edo tutorea prestazioren baten onuradun badira desgaitasunaren ondorioz, % 75 gastu lagungarrietatik deskontatuko da egoitzazentroetako edo etxean emandako laguntza-gastu iraunkorrak direnean.

3. Agiriak:

- a) Desgaitasunaren ziurtagiria, desgaitasunaren arabera eskumena duen organoak emana.

- b) GSINen ziurtagiria, esleitutako pentsioaren edo familia-prestazioaren zenbatekoa jasotzen duena, halakorik badu, edo horri buruzko ziurtagiri negatiboa.
- c) Egoitza finkatua duen lurraldeko erakunde eskudunaren ziurtagiria, pazientea artatzeko ekitaldian zehar jasotako laguntzei buruzkoa, edo, hala badagokio, ziurtagiri negatiboa.
- d) Desgaitasunak edo urritasunak tratatzen, berreskuratzen eta birgaitzen espezializatutako profesionalek errehabilitazio-zentro edo -erakundeek egindako gastuen fakturak eta, hala badagokio, joan-etorriek eragindako gastu justifikatuak. Fakturak zirkular honen 10.2.b) artikuluan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte.

12. artikulua. Tratamendu eta esku-hartze medikoetarako laguntza

Tratamendu medikoek eta ebakuntza kirurgikoek eragindako gastuak finantzatu beharko dira, betiere osasun-sistema publikoak edo mutualitate-sistema publikoak emandako laguntza mediko-farmazeutikotik kanpo badaude eta helburu bakarra estetika ez badute.

1. Agiriak:

- c) Organo eskudunak (Osakidetza, GSIN, Mutuak) egindako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, egindako tratamendu edo ebakuntza kirurgikoa prestaziotik kanpo geratzen dela adierazi behar da.
- d) Medikuen txostenak, gaixotasunaren edo lesioaren diagnostikoari eta jasotako tratamenduari buruzkoak.
- e) Tratamendua jaso duen zentro espezializatuak igorritako fakturak.

13. artikulua. Nazioarteko adopzioak

1. Prestazioa oroharreko dirulaguntza bat izango da, dena batera ordaintzekoa, eta atzerriko herrialdeetan adingabeak adopzioan hartzeko gastuak finantzatzeko erabiliko da. Akordioaren Jarraipenerako Batzorde Paritarioak erabakiko du zenbatekoa, laguntza-modalitate horretan jasotako eskaera-kopuruaren arabera.

2. Jasoko den zenbatekoa kalkulatzeko, zirkular honen 2.4) artikuluan azaldutako prozedura erabiliko da, zenbatekoa esleitu ondoren.

3. Agiriak:

- a) Adopzioa onartzen duen jatorrizko herrialdeko ebazpen judizialaren fotokopia konpultsatua.
- b) Familia-liburuaren fotokopia konpultsatua, adoptatuaren izen-ematea jasotzen duena.

14. artikulua. Salbuespenezko laguntzak

1. Premia eta larritasun berezia direla eta, izaera bereko beste kasu batzuk hartu ahal izango dira kontuan, egoera ekonomiko pertsonal edo familiarrari karga berezia eragiten diotenak.

2. Agiriak. Eskaeraren arrazoiaren ezaugarrien arabera egokiak direnak eta eskatzaileek kausa hobeto ezagutzeko egokitzat jotzen dituztenak.

15. artikulua. Zerga-tratamendua

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak bere garaian emandako erantzun loteslearen arabera, Eusko Jaurlaritzak gizarte-funtsen laguntza ekonomikoei buruz egindako kontsultari dagokionez, laguntza-mota guztiek tratamendu hau izango dute PFEZn:

1.- Tratamendu eta esku-hartze medikoetarako laguntzak; ondorengo errehabilitaziorako laguntzak; oftalmologia, odontologia eta ortopedia gastuetarako laguntzak; barne-zolak eta audifonoak; bai enplegatuenak eta bai haien familiakoenak, ez dira zergapetuta egongo, gaixotasun gastuak baitira, eta, betiere, osasun-zerbitzu publikoak edo dagokion mutualitateak estaltzen ez baditu.

2.- Urritasun fisiko, psikiko edo sentsozialak tratatzeko, errehabilitatzeko edo horiei arreta berezia eskaintzeko laguntzek ere ez dute PFEZ ordaindu beharko, ezta ibilgailu motordunak eta etxebizitza egokitzeko laguntzek ere.

3.- Adopzioengatiko laguntzek eta seme-alabengatiko laguntzek (hautzaindegigastuetarako, ikasketa- eta prestakuntza-gastuetarako) PFEZa ordaindu beharko dute.

4.- Salbuespenezko laguntzek ez dute PFEZa ordaindu beharrik izango, baldin eta laguntzok osasunaren tratamendurako edo sendatzeko badira, eta, betiere, osasun-zerbitzu publikoak edo dagokion mutualitateak estaltzen ez baditu.

16. artikulua. Datuen babesa

1. Eskaerak kudeatzeko eta gizarte-funtsaren kontura emandako laguntzak jasotzeko, ezinbestekoa da eskatzaileen datu pertsonalak biltzea, prozesatzea eta Osakidetza tratamendu-jardueraren erregistro batean biltzea.

Hala, Osakidetza deialdiaren helburua betetzeko behar-beharrezkoak diren datuak jasoko ditu.

Interesdunak parte hartzen duen deialdi baten ondorioz bildutako datu pertsonalen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera egingo da.

2. Deialdi batean parte hartzen duten langileek berariaz onartzen dute beren datu pertsonalak prozesatzea; prozesatze hori gizarte-funtsaren laguntzen deialdiaren helburua zorrotz betetzeko egingo da.

Datu pertsonalen tratamendua ez onartzeak deialdian parte hartzeari uko egitea dakar ezinbestean.

Osakidetza zerga-gaietan eskumena duen administrazioaren (dagokion Foru Aldundiaren) esku jarriko du, hark eskatuta, laguntza-modalitate jakin baten emakida.


3. Artikulu honetan aipatzen den informazioaren kudeaketa "Osakidetza-EOZren langileen erregistroa" izeneko tratamendu-jardueraren erregistroan egiten da.

Erregistro horren arduraduna Giza Baliabideen zuzendaria da, eta hari eska dakioko datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramateko edo beste edozein eskubide. Horretarako, Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzara jo behar da (Araba kalea 45; 01006 Vitoria-Gasteiz), edo Osakidetza Datuak Babesteko Ordezkariarengana (helbide bera), edo helbide elektroniko honen bidez harremanetan jarri: DBO-DPD@osakidetza.eus.

Xedapen gehigarria

Salbuespen gisa, laguntzak pazienteen eta laguntzaileen joan-etorrietako gastuetara zabaldu ahal izango dira, betiere hori ezinbestekoa bada.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko abenduaren 15ean

 **Osakidetza**

Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Izpta./Fdo.: Josune Retegi Ormazabal

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA

